

Ordizian, 2010eko martxoaren 26an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, OHIKO DEIALDIAN, honakoak bertaratu zirelarik

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA:

Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Alejandra Iturrioz Unzueta andrea	PNV taldea
Miren Auzmendi Urkiola andrea	PNV taldea
Jon Txurruka Etxezarreta jauna	PNV taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Mikel Leunda Semperena jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea
Carlos Gonzalez Astiz	EB-Berdeak/Aralar taldea
Iban Asenjo Garde jauna	EA taldea
Belen Maiza Urrestarazu andrea	EA taldea
Jose J.Lopez Fernandez jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Mónica Marañón Basarte andrea	PSE/EE (PSOE) taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK

Iñigo Manrique Cía jauna	PP taldea
--------------------------	-----------

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aramburu Otegi.

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra andrea

BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.-2010eko otsailaren 25an egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea
..... 3. orr.
- 2.IU/EB-Aralarko zinegotziek kargua hartzea.
..... 4. orr.
- 3.200 zenbakia duen Alkatetza dekretuaren berri ematea, aurtengoa, Alkatetza funtzioetan ordezkatzea.
..... 5. orr.
- 4.Kaleak aldatzeko proposamena.
..... 6. orr.

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK

- .- Kutxako kontseilari izendatzeko proposamena
..... 7. orr.

GORABEHERAK

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 08:10 h

BUKAERA ORDUA: 8:30 h



Batzordeburuak hasiera eman dio bilkurari, gai-zerrendako lehen puntuaren berri emanaz.

1.-2010eko otsailaren 25ean egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea

Proposamena

2010eko urtarrilaren 14an egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Asenjo jauna

Adierazi du laugarren puntuan euskaraz dagoen aktan eta baita gaztelerazkoan ere (7. or.) “2009ko gastuak 2010eko Aurrekontura sartzea eta dagokion kreditu gehigarrien espedientea onartzea” puntuan, bozketa gaizki jasota dagoela, proposamenaren aldeko botoak guztora 9 dira eta ez 10 bertan azaltzen den moduan.

Kontu-hartzailea

Jakinarazi du puntu horretan bertan, 4. puntuan, berak esan zuena ez dagoela behar bezala jasota. Alkatearen mintzaldian, lehenengo bi paragrafoen ondoren eta hirugarrenaren aurretik, kontu-hartzaileak esandakoen artean honakoa jaso beharko litzateke.

“Kontu-hartzaileak ezetz erantzun dio, arazoa benetan aurrekontu krediturik ez zegoela da. Honakoa gerta daiteke batzuetan: Gastuak zehazki aurrekontua izatea eta onartu denean aurrekontu krediturik ez gelditzea aurretik kreditu hori gabeko gastu bat onartu delako. Soluzioa izango litzateke partiden arteko loturarik ez egotea, baina horrekin “malgutasuna” galduko genuke.

3. paragrafoa, 4. paragrafo izatera pasako da eta honela idatzita geratuko da: Diru gehiago behar bada partida batean partiden loturen bidez gehiago gastatu daiteke baina horrekin batera lotutako beste partidetan gutxiago gastatu behar da, ardura hori eduki behar da. Honek sistema malguagoa bihurtzen du.”

Horrekin batera, bere azkeneko mintzaldian, 2. paragrafoan honako testua kentzeko eskatu du: “aurrekontuetan sartutakoak”.



Asenjo jauna

Jakinarazi du, 16. orrialdeko gaztelerazko aktako 8. puntuan, "osoko bilkurak egiteko eguna aldatzea" Leunda jaunari erantzuten dion puntuan, akta gaizki jasota dagoela, berak honakoa esan zuen: ordutegia 9,00etatik 8,00etara EB-Berdeak/Aralar taldeak eskatuta aldatu zela.

Idazkari andreak zehaztutako zuzenketak egin ditu aktan.

Bozketa

Alkate jaunak proposamena zehaztutako aldatetekin bozkatzeko eskatu du:

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 4, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, IU/EB-ARALAR 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren bigarren puntuaren berri eman du:

2.-IU/EB-Aralarko zinegotziek kargua hartzea.

Proposamena

Osoko Bilkuran jakinarazten da 2010eko urtarrilaren 17an Hauteskundeetako Batzorde Orokorrek Ezker Batua-Berdeak-Aralar koalizioko zinegotzi gisa Carlos Gonzalez Astiz eta Julian Carrasco Obregonen egiaztatutunak bidali dituela, Maialen Galparsoro Odriozola eta Leonor Uranga Saiz ordezkatzuz, hurrenez hurren.

Horrez gain jakinarazten da Carlos Gonzalez Astiz jaunak eta Julián Carrasco Obregón jaunak ondasun, interes eta bateraezintasunen aitortpena egin dutela.

Beraz, Zinegotzi kargua hartzea dagokie Alkate jaunak hitza hartu ondoren 707/79 Errege Dekretuan zehazten den funtzio publiko eta karguen formula jarraituz.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.



Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna

Hauteskundeetako Batzorde Orokorrak Ezker Batua/Aralar koalizioko zinegotzi gisa Carlos Gonzalez Astiz eta Julian Carrasco Obregonen egiaztagutunak bidali dituela jakinarazi du.

Idazkari andrea

Osoko Bilkurari jakinarazi dio biek sinatu dutela ondasun, interes eta bateraezintasunen adierazpena zinegotzi kargua hartu aurretik.

Julian Carrasco Obregón jauna ez da osoko bilkurara aurkeztu, beraz, ez du kargua hartu.

Alkate jaunak Gonzalez Astizi zin eginarazi dio, osoko bilkurara azaldu baita, 707/79 Errege Dekretuan zehazten den funtzio publiko eta karguen formula jarraituz, eta Gonzalez Astizek honakoa erantzun dio:

“ Errepublikanoa naiz, baina legeak agintzen duelako zin egiten dut, edo hitzematzen dut Erregeari leial izanda, zinegotzien karguaren eginbeharrak zintzo beteko ditudala, eta Konstituzioa gorde eta gordearaziko dudala, Estatuaren legeen legea den aldetik”, eta ondoren Gonzalez jauna bere eserlekura joan da.

Alkate jaunak Udalaren domina eman dio.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hirugarren puntuaren berri eman du:

3.- 200 zenbakia duen Alkatetza dekretuaren berri ematea, aurtengoa, Alkatetza funtzioetan ordezkatzea.

Alkate jaunak osoko bilkurako kideei jakinarazi die Balen Maiza Urrestarazu Alkateordeak Alkate funtzioetan ordezkatu duela otsailaren 26tik martxoaren 5era, biak barne, data horietan ez egoteagatik.

Osoko Bilkura jakinaren gainean.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren laugarren puntuaren berri eman du:



4.- Kale-izendegia aldatzeko proposamena.

Proposamena

Euskaltzaindiak egindako hasierako proposamenetik abiatuta Alkatetzak aurkeztutako kale-izendegiaren aldaketa proposamenaren berri eman da.

Horrekin batera San Joan-22 HIEEn kale berriei izena jarri behar zaiela jakinarazi da eta Euskaltzaindiak egindako hasierako proposamenetik abiatuta Alkatetzak proposamena aurkeztu duela.

Hori guztia ikusita, 2010eko martxoaren 17ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak, honakoa onartzea proposatzen du:

AKORDIO PROIEKTUA

1.-Ondorengo kaleen izenak aldatzea.

<u>Gaur egungo izena</u>	<u>Izen berria</u>
Arana kalea	Jose Arana kalea
Arteaga kalea	Jose Joaquín Arteaga kalea
Bustuntza etxealdea	Buztuntza etxaldea
Bustuntza plaza	Buztuntza plaza
Filipineta kalea	Filipinak kalea
Foruen pasealekua	Foru pasealekua
Gernikako Arbolaren kalea	Gernikako Arbola pasealekua
Goenkalea	Goenkale
Goitia kalea	Domingo Goitia kalea
Granja San Isidro	Arranomendia
Ibarbia kalea	Joaquin Ibarbia kalea
Intsausti plaza	Intxausti plaza
Juan de Amezqueta kalea	Joan Amezqueta kalea
Laskaibar	Lazkaibar
Lukusin plaza	Lukusain plaza
Majori plaza	Majoria plaza
Mariaratzaldea	Mariaratsaldea
Mariaratz kalea	Mariarats kalea
Mendizabal kalea	Victor Mendizabal kalea
Nikolas Lekuona plaza	Nicolas Lekuona plaza
Oiangurenaldea	Oianguren
San Inazio kalea	San Ignazio kalea
San Juan auzoa	San Joan auzoa



San Pedro-Done Petri kalea

Done Petri kalea

2.San Joanen sortuko diren kale berrien izen proposamena onartzea.

- a) Zabalabidea kalea (Mapako A-B.)
- b) Irubureta kalea (Mapako A-C)
- c) Otatza kalea (Mapako H-G)
- d) Floreaga kalea (Mapako F-G-L)
- e) Intxaurzar kalea (Mapako I-F-J)
- f) Karrillazpi kalea (Mapako C-E)
- g) Filipinak kalea (Mapako C punturaino)

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna

Jakinarazi du Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean erabaki dela puntu hau Osoko Bilkuran sartzea, baina arazo bat sortu dela eta Euskaltzaindiak egindako proposamena osatu gabe dago (San Joanen, adibidez, hirigintza proiektuaren arabera, Euskaltzaindiak proposatutakoak baino kale-izen gehiago egon behar dute, eta gauza bera Oiangurenaldean).

Maiza andreak azaldu du lana falta diren izenekin osatu behar dela, eta izen horiek planoan kokatu.

Beraz, Alkate jaunak puntua hurrengo osoko bilkuran eztabaidatzeko proposamena egin du, proposamena edo lana osatua eta grafikoa denean.

Bozketa

Alkate jaunak kale-izendegiaren aldaketa beste osoko bilkura batean aztertzeko proposamena bozkatzeko eskatu du:

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 (PNV 4, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0



Ondorioz, puntu honi buruzko erabakia atzeratzea onartu da.



Jarraian, Alkate jaunak jakinarazi du Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean eztabaidatu gabeko puntu bat sartuko duela Gai Ordenean, osoko bilkurak horrela erabakitzen badu: Jakinarazi du beharrezkoa dela **Kutxan kontseilari bat eta haren ordezkaria izendatzea** eta izendapen proposamena apirilaren 10a baino lehen bidaltzea komeni dela Kutxara. Horregatik, presazkoa da.

Asenjo jauna

Izendapena eskatuz Kutxaren agiria noiz iritsi den galdetu die Alkatea eta Idazkariari.

Idazkari andrea

Erantzun dio zehatz ez dakiela, baina ba dela aste batzuk.

Asenjo jauna

Esan su ez dagoela ados puntu honen presazko izaerarekin, proposamena Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean aztertu behar zela uste du.

Alkate jauna

Bere alderdiarekin kudeaketa lanak egin dituela erantzun dio, eta gaia alderdi politiko desberdinetan aztertu dela uste du.

Bozketa

Alkateak aurkeztutako gaiaren presazko izaera bozkatzeko eskatu du.

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (PNV 4, EA 2, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 3 (PSE-EE (PSOE))

Ondorioz, aurkeztutako gaiaren presazko izaera onartu da.

Proposamena



KUTXAK bidalitako idatziaren berri ematen da, Kutzako Goberu Organoak berritzeko prozesua hasiko dela jakinaraziz, eta bertan azaltzen da Ordiziako Udalari Kontseilari Orokor baten izendapena dagokiola, Orio, Urnieta eta Segurarekin batera.

Hori guztia ikusita eta gaur egungo ordezkariak postua uztea egoki ikusten dela ikusita eta kontseilari berri bat eta bere ordezkoa izendatu behar dela ikusita, honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

*KUTXAKO Kontseilari Orokor ARANTZA GONZALEZ GARCIA andrea izendatzea, Udalaren ordezkari gisa eta JUAN TOMASENA ALZURI jauna ordezeko gisa.

Bozketa

Alkate jaunak proposamean bozkatzeko eskatu du.

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (PNV 4, EA 2, IU/EB-ARALAR 1 (Carlos Gonzalez Astiz))

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 4 (PSE-EE (PSOE) 3 + 1 IU/EB-ARALAR (Mikel Leunda Senperena))

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartu egin da.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Galde-eskeak

Alkate jaunak jakinarazi du Udaletxeko obrak bukatu dituztela eta bulego berrietara pasatzeko garbitasun-lanak egitea falta dela.

Edozein unetan lekualdaketa egingo da.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.

